

Euskarazko hedabideetako profesionalen lan-baldintzen analisi

Alazne Aiestaran Yarza
EHUko ikertzailea

Euskarazko hedabide pribatuetan ari diren beharginen egoera profesionala aztertzen da hurrengo lerroetan. Prentsa idatzia, telebista, irratia eta sareko hedabideak hartu dira kontuan analisi honetan. Besteak beste, azaltzen da zein diren langileen batez besteko soldatak, euskarazko hedabide pribatuen tamaina, langileen antzinatasuna, eta lan-baldintzen arloan enpresa pribatuaren eta publikoaren arteko ezberdintasunak. Halaber, ikerlanaren emaitzetatik eratorritako ondorio nagusiak bildu eta lan-baldintzei dagokienez, sektorea hobetzeko proposamenak jaso dira.

GAKO-HITZAK: Euskarazko hedabideak · Lan-baldintzak · Hobetzeko proposamenak.

This research analyses the professional situation of basque private medias, such a press, radio, television and internet. The article refers to differents aspects of labour conditions, such as the average salaries, number of people working on the basque media, workers seniority and the differences between basque private and public medias as it relates to working conditions. Likewise, this research gathers the main results and proposals for improving the future situation of labor conditions in basque private medias.

KEY WORDS: Basque medias · Work conditions · Proposals for improving.

Jasotze-data: 2009-04-27. *Onartze-data:* 2009-05-03.

1. Sarrera

Eusko Jaurlaritzak berriki hainbat euskal hedabideren ordainsarien inguruan eginiko datu-bilduma¹ abiapuntu hartuta, euskal hedabideetan ari diren profesionalen iritzia jaso eta egoeraren deskribapena egitea du helburu analisi honek.

Gaur egun kalean diren euskarazko hedabide gehienak XX. eta XXI. mendeetan sortu ziren. Hainbatetan bidea ez da samurra izan, baina zailtasunak zailtasun mezu-bide asko gure egunetaraino heldu dira, behargin askoren lanari esker neurri handi batean. Zein da, ordea, euskarazko hedabide pribatuetan diharduten langileen egoera profesionala? Zenbat denbora ematen dute euskarazko hedabideetan langile horiek? Zergatik? Galdera horiei erantzutea da analisi honen helburuetako bat.

Gaia ez da atzo goizekoa eta ez dauka zerikusi zuzenik egun bizi dugun munduko krisi ekonomikoarekin, nahiz eta krisiak ez duen batere laguntzen. Hala ere, ez dator krisiaren harira, euskarazko hedabideetako langileen egoerak urteak daramatza kinka larrian.

Euskarazko Kazetaritzaren 1. Kongresua antolatu zuen lan-taldeak *Kazetaritzaren oraina eta geroa* liburuan zenbait ondorio aipatzen zituen, tartean kazetaritzan ari diren profesionalen lan-baldintzei buruzkoak: «Zenbait kasu eredugarri alde batera utzita, kazetari euskaldunek ere lan-baldintza ez duinak pairatzen dituzte sarritan: lan-jardun amaigabeak, ordain-sari eskasak eta badaezpadako kontratuak. Kazetaritza-eredu duin, etiko eta beregaina lortzea helburu izanik, funtsezkoa da egoera horiek errotik ezabatzea» (Zenbaiten artean, 2005: 448).

Era berean, 2006ko martxoan, «Euskarazko hedabideen topaketa-mintegia» antolatu zuten euskarazko hainbat hedabide². Mintegi hartako laburpen-txostenean ere, lan-baldintzei buruzko kezka agerian geratu zen: «Euskarazko medioetako langileek orokorrean lan-baldintza txarrak pairatzen dituzte eta lan prekarietatea begi-bistakoa da. Euskarri bakoitza (prentsa, irratia, telebista eta sarea) nor bere aldetik ibiltzeak ere, ez dio sektoreari mesederik egiten» (Zenbaiten artean, 2006). Ekimen hartatik, idatzizko hedabideen batzorde iraunkor bat sortu zen, Jaurlaritzaren subentzio-politikaz arduraturik, hedabideen biziraupen ekonomikoaz arduraturik eta etorkizunean administrazioan eragiteko xedearekin.

Kongresua eta mintegia egin zirenetik hiruzpalau urte igaro dira, eta ez du ematen gauzak larregi aldatu direnik, ez onerako bederen.

Gaiak arreta berezia merezi du, langileak eurak baitira hedabideetako zutabe nagusia. Oinarri hori finkatu ezean, proiektu horiek sendotzea ezinezkoa da eta, ondorioz, daudenak indartzea eta sustraitzea ezinezkoa litzateke, ezta produktu berriak sortzea ere. Iraganean sortutako hedabide horiek egonkortzeko unea da eta finkatzeko ibilbide horretan ezinbestekoa da langileen lan-baldintzak eta soldatak hobetzea.

1. Eusko Jaurlaritza (2009): *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia* (argitaratu gabe), Kultura Saila, Gasteiz.

2. EKT SA, Elhuyar, Erein-Ipurbeltz, Nabarra, Topagunea Euskara Elkartearen Federazioa eta Udako Euskal Unibertsitatea-Uztaro izan ziren antolatzaileak.

Proposatutako ikergaiaren inguruan bada Euskal Herrian ardua sozial eta politikoa nabarmena; nola administrazioaren aldetik hala gizarte-erakundearen aldetik.

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak batzorde berezia sortu du euskarazko hedabideak eta euskararen presentzia hedabideetan aztertzeko. Batzorde horrek, besteak beste, euskal hedabideen ordainsarien analisia burutu berri du eta gaiaren inguruan hausnarketa-txostenak prestatu ditu. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde publikoak koordinatzen dituen HAKOBA erakundea (Herri Administrazioen Koordinazio Batzordea) «Euskara eta Hedabideak» gaiaren inguruko hausnarketa egiten ari da azken bizpahiru urteotan.

Erakunde publikoek ez eze, gizarte-mailan lanean diharduten erakundeek ere sektoreko lan-baldintzen inguruan erakutsi dute beren kezka.

Topagunea Euskara Elkarleen Federazioaren baitan hedabideen sailak pisu kuantitatibo eta kualitatibo handia du. Bertan, euskarazko herri-hedabide zenbait daude bilduta: bost irrati, telebista bi eta 34 aldizkari, hain zuzen ere. Sektoreko langileen lan-egoera aztergai izan du Topaguneak bere bazkideekin batera azken urteotan.

Orobat, Euskal Herriko Unibertsitateak eta zehazki Gizarte eta Komunikazio Zientzien Fakultateak azken urteetan euskarazko hedabideen inguruan hausnartzeko premia sumatu du. Izan ere, bertan jasotzen dute formazioa etorkizunean sektorean lan egingo duten kazetari eta komunikatzaile askok eta askok. Horren erakusle, hainbat urtetan martxan izan den «Gizarte-komunikazioa Euskal Herrian» doktorego-programa eta iaz martxan jarri zen «Komunikazioa eta hizkuntza gutxituak» masterra.

2. Metodologia

Artikuluaren erabili diren datu kuantitatiboek oinarria dute Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2009ko urtarrilaren 27an aurkeztutako *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia* txostenean. Oro har, euskal hedabideetan ari diren langileen lan-baldintza eta ordainsarien inguruan ez da lan asko argitaratu eta orain arte ez da modu sistematikoan hedabideetan ari diren profesionalen soldaten inguruko daturik inon jaso. Hedabide bakoitzak bere datuak ditu eta oso zaila izaten da banan-banan datu horiek lortzea, kasu batzuetan ez baitituzte eman ere egiten. Horiexek izan dira hain zuzen ere Eusko Jaurlaritzak egindako datu-bilduma aukeratzeko arrazoi nagusiak.

Datu-bildumako emaitzak abiapuntua izan dira, autoreak moldatu eta bere interpretazioa egin ahal izateko. Guztira 93 hedabide aztertu dira txostenean, lau multzotan banatuta: prentsa idatzia, irratiak, telebistak eta hedabide digitalak. Datuak 2007koak dira, urte horretan Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak diruz lagundu zituen hedabide pribatuek aurkeztu zituztenak.


Metodo kualitatiboa ere erabiltzea ezinbestekoa izan da, datu kuantitatiboetan ageri ez den bestelako informazioa biltzeko batetik, eta aipatu datu-bilduma kuantitatibotik eratorritako emaitzak modu egokian interpretatu ahal izateko, bestetik. Metodo kualitatibo interpretatzaileen baitan dauden tekniken artean, elkarrizketa sakonak egitea hobetsi da, gaur egun euskarazko hedabideetan ari diren profesionalekin.

3. Datu-bilketaren emaitzak eta analisisia

3.1. Eusko Jaurlaritzak 2007an diruz lagundutako egitasmoak

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007an 99 hedabide lagundu zituen diruz, guztien artean 5.355.148 € banatuz. Hala ere, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egindako ikerketan 93 hedabide eta bertan diharduten 538 langileen egoera eta soldatak aztertu dira.

1A grafikoa



Iturria: *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisisa*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Autoreak moldatua.

A taldea: Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua: euskararen esparru geografiko osoan eta udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.

B1 taldea: Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak. Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak.

B2 taldea: Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak. Udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

Gehigarriak: Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak.

Irratiak: Emititu ahal izateko beharrezkoak diren baimenen jabe izanik, partez edo erabat, euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak.

Telebistak: Partez edo erabat, euskaraz ari diren telebistak.

Digitalak: Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak.

3.1.1. Euskara hutsezkoen alde

Beraz, datuok erakusten digute, prentsaren baitan, 2007an euskal gobernutik dirua jaso zuten egunerokoak³, aldizkariak⁴ eta toki-aldizkariak⁵ datu-bildumaren baitan daudela. Ez ordea, nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak (*Araba Gaztea*, *Ortzadar*, *Gaur 8* eta *Izan Gazte*).

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007an lagundu zituen 5 irratietatik (Arrate Irratia, Xorroxin Irratia, Bizkaia Irratia, Herri Irratia eta Segura Irratia) 2 baino ez dira datu-bilketan sartu, ezta lizentziarik gabe ari direnak ere. Telebistei dagokienez, 2007an Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza jaso zuten euskarazko telebista guztiak sartu dira datu-bilduman: Zarautz eta Kito Telebista, Oizmendi Telebista, Goiena Telebista, Goierri Telebista, 28 kanala, Ttipi-ttapa Telebista eta Xaloe Telebista, alegia. Digitalen multzoan, orotara 22 hedabide⁶ eta berri-agentzia diruz lagundu zituen Jaurlaritzak 2007an, eta guztiak aztertu dira.

Era berean, EITB datu-bilketa honetatik kanpo dago. Alegia, Euskal Telebista-ko, Eitbnet-eko eta Eusko Irratiko langileei buruzko daturik ez da bertan azaltzen. Ondorioz, ezin esan daiteke *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia* lanak egun 700dik⁷ gora langile batzen dituen sektorearen egoera profesionalaren errealitatea bere osotasunean biltzen duenik. Alabaina, publikoak ez diren eta Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak 2007an diruz lagundu zituen euskarazko hedabideetan ari diren langileen egoera profesionalaren erradiografia izan daitekeena osatzeko, lagungarri suerta daitezke datu-bilketatik eratorritako zenbait argibide.

3.2. Egitasmoen tamaina

Aztertu diren euskarazko 93 hedabideetan 598 profesional ari ziren 2007an lanean. Hedabide horien langile kopurua eta tamaina kontuan hartzen badugu, lauzpabost komunikabide-enpresa kenduta, gainerakoak lau edo bost langile dituzten elkarteak dira.


3. *Busturialdeko Hitza*, *Iruxuloko Hitza*, *Goierriko Hitza*, *Lea-Artibai eta Mutrikuko Hitza*, *Oarsoaldeko Hitza*, *Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza*, *Urola Kostako Hitza*, *Hernaniko Kronika* eta *Berria*.

4. *Euskal Herriko Natura*, *Aldaketa 16*, *Nabarra*, *Bertsolari*, *Gaztezulo*, *Ipurbeltz*, *Elhuyar*, *Xabiroi*, *Egan*, *Aizu!*, *Hemen*, *Jakin*, *Aisia biziz*, *Karmel*, *Entzun*, *Argia*, *Gazteberri*, *Bat* eta *Uztaro*.

5. *Aiurri* hamaboskaria, *Aiurri Beterrri-Buruntza* astekaria, *Baleike*, *UK*, *Mailope*, *Guaixe*, *Uztarría*, *Txaparro*, *Prest!*, *Pil-pilean*, *Noaua!*, *Maxixatzen*, *Karkara*, *Kalaputxi*, *Asteleheneko Goienkaria*, *Goienkaria*, *Geu*, *Galtzaundi*, ...*eta kitto!*, *Drogeteniturri*, *Danbolin*, *Berton*, *Begitu*, *Barren*, *Artzape*, *Anboto*, *Aikor*, *Goierritarra*, *Oarsoaldean On*, *Irunero*, *Txintxarri*, *Ttipi-ttapa* eta *Otamotz*.

6. *Baleike.com*, *nabarra.com*, *Aiurri* aldizkariaren webgunea, *Bertsolari.net*, <www.busturialdeko-hitza.info>, *Sustatu.com*, <www.kronika.net>, www.iruxulokohitza.info, *Europa Press*, *Berria.info*, *Bidasoamedia.info*, *ElgoiBarren.net*, *Anboto.org*, <www.goierrikohitza.info>, <www.gaur8.info>, *Hari@*, <www.oarsoaldeko-hitza.info>, <www.tolosaldeko-hitza.info>, *Ttipi.net* egunkari digitala, *entzun.com* ataria, <www.urola-kostahitza.info> eta *11barri.info*.

7. Datu hau estimazio bat da, bi iturri hauetan oinarrituta: Iñaki Zabaletak eta bere ikerketa-taldeak "Hizkuntza gutxituetako hedabideak Europar Batasunean: egoera, banaketa eta garapen-abiadura ezberdinak" artikuluan diotenez, 650 kazetari ari dira euskaraz lan egiten. Era berean, *Kazetaritza euskaraz: Oraina eta Geroa*, Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan aurkeztu ziren txostenak biltzen dituen lanean, 700dik gora berriemaile ari direla euskaraz jasotzen da.



Iturria: *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Autoreak moldatua.

A taldea: Euskara hutsezko eguneroko prentsa inprimatua: euskararen esparru geografiko osoan eta udalerrri edo eskualde jakinetan zabaltzen diren egunkariak.

B1 taldea: Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak. Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak zein aldizkari espezializatuak.

B2 taldea: Euskara hutsezko aldizkari inprimatuak. Udalerrri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak.

Gehigarriak: Nagusiki gaztelania darabilten egunkarien euskara hutsezko gehigarriak. Ez dira grafikokoan agertzen.

Irratiak: Emititu ahal izateko beharrezkoak diren baimenen jabe izanik, partez edo erabat, euskaraz ari diren uhin bidezko irratiak.

Telebistak: Partez edo erabat, euskaraz ari diren telebistak.

Digitalak: Internet bidezko hedabideak eta berri-agentziak.

3.2.1. Enpresa-egitura ezinezkoa

Hedabide horiek oso dira pluralak: euskarri, tirada, antolaketa, enpresa-ikuspegi, finantziario, maiztasun eta langile kopuruari dagokienez. Multzo bakoitzean ari den langile kopurua aztertzen badugu, arestian aipatutakoa berresten dute emaitzek. Datu-bilduman azertu diren 9 egunerokoetan guztira 199⁸ langile daude, batez beste 22 langile enpresa bakoitzean. Datu hori, ordea, ez da errealia. Izan ere, *Berria* egunkarian soilik 100dik gora langile ari baitziren 2007an lanean. Horrek honako ondoriora garamatza: gainerako 8 egunerokoetan batez beste 10 profesional ari zirela lanean. Langile-baliokidetzaren⁹ datuak kontuan hartuta eta eragiketa berdina eginez, kopuruak txikiagoak dira. Hots, egunerokoetan guztira 167 langile ari ziren eta 100 *Berria* egunkarian. Beraz, zazpi *Hitzak* eta *Hernaniko Kronika* batez beste 8 profesionalz daude osatuta. *Berria* egunerokoa alde batera utzita, lan-talde txikiak dira, oro har, euskarazko egunerokoetan ari direnak.

8. Kopuru horren baitan lanaldi partziala eta lanaldi osoa duten langileak hartu dira kontuan.

9. Multzo honetan langile partzialen dedikazioa lanaldi osoa dutenekiko % 19 eta % 49 artean kokatzen da.

Gainerako multzoetan beste horrenbeste gertatzen da. Euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkari eta aldizkari espezializatuen kasuan (B1 multzoan), lan-taldeak batez beste lau¹⁰ edo bost¹¹ profesionalek osatzen dituzte. Kontuan hartu behar da guztira 98 langile ari direla multzo honen baitako hedabideetan, eta ikerketak¹² jasotzen duen bezala, langile horien erdia gutxi gorabehera bi aldizkaritan dago banatuta.

Udaleri eta eskualde jakinetan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkarietan (B2 multzoan), batez beste agerkari bakoitzean 3-4 laguneko lan-taldeak ari dira euren produktuak maiztasun ezberdinez kaleratzen. Multzo horretan *Goienkaria* (Debagoieneko astekaria) dago eta bertan 30 lagun inguru ari ziren lanean 2007an. Horrek multzo berean dauden gainerako aldizkarietan ari diren lan-taldeen batez bestekoa gehiago jaisten du, 2 langile baino zertxobait gehiagora. Inazio Arregi¹³ Goienako gerentearen esanetan, Eusko Jaurlaritzak egin duen datu-bilduman agertzen diren hedabide horien artean, gehiengoa den tokiko aldizkarien multzoko batez besteko tamaina horrek aurrera begira ez du ahalbidetzen hedabideen munduan enpresa sendorik sortzerik.

Irratien kasuan, bi enpresa baino ez ditu aztertu Eusko Jaurlaritzak, baina prentsan baino lan-talde handiagoak direla ondoriozta daiteke, 11 laguneko lan-taldeak hain zuzen ere.

2A grafikoan agertzen diren datuei erreparatuz, aztertu diren euskarazko telebistetako lan-taldeak batez beste 7-9 langilez osaturik daude.

Internet bidezko hedabide eta berri-agentzietan, langile bakarra edo asko jota bi langile ari zirela erakusten dute datuek.

Bestalde, 2A grafikoan ikus daitekeenez eta langileen baliokidetzak estimatzeko erabili diren irizpideak kontuan hartuta, prentsa idatzian eta telebistan langile kopuru handiagoa dago dedikazio partzialarekin irrastian eta hedabide digitaletan baino. Prentsa idatziaren baitan, egunerokoetan langileen eta langile-baliokidetzaren arteko aldea 32 langilekoa da. Toki-aldizkarien kasuan, aldiz, 26 langileren aldea dago. Telebistan, langile eta langile-baliokidetzak banatzen dituen kopurua 8,5ekoa da.

3.2.2. Langileen kopuru murrizkak langileen ordezkariak oztokatzen du

Oro har, publikoak ez diren euskarazko hedabideetan ari diren lan-taldeak txikiak dira eta egitasmoen tamainak bertan diharduten profesionalen lan-baldintzetan erabateko eragina duela esan daiteke. Eusko Jaurlaritzak aztertu dituen hedabide gehienetan, langile kopuru horrek ez baitu ahalbidetzen langile-ordezkaririk aukeratu ahal izatea, ezta enpresa-komitea izendatzerik ere. Izan ere, legearen arabera, beharrezkoa da sei langile izatea langile-ordezkaria aukeratu ahal

10. Lanaldi partziala eta lanaldi osoa duten langileak konputatuz.

11. Lanaldi partzialean ari direnak 4 orduko dedikazioa dutela aurreikusi da, beraz lanaldi osoko langileen % 50 izango balitz bezala konputatu dira.

12. Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia. 23. or.

13. Sakoneko elkarrizketa: Inazio Arregi, Goienako gerentea, 2009-03-9, Arrasate.

izateko. Era berean, lan-legediak 50 langiletik gorako enpresetan enpresa-komitea sortzeko aukera eskaintzen du.

*Goiena*¹⁴, *Berria*, *Hitzak*¹⁵, euskararen esparru geografiko osoan zabaltzen diren informazio orokorreko aldizkariak eta B1 multzoko bi aldizkari espezializatu kenduta, euskaraz ari diren hedabide gehienetan ez dago langile-ordezkarik eta enpresa-komiterik sortzeko aukerarik. Beraz, zailagoa da langile kopurua txikia den hedabide horietan lan-baldintzak hobetzea eta horien inguruko ardurak aldarrikatzeko espaziorik bilatzea. Ondorioz, lan-baldintza eta soldatei buruzko arazo eta kezkek, besteak beste, ordutegiak, gaixotasun-bajak, amatasun-bajak, kontratuen hobetzea, soldata-igoerak edo oporrei buruzkoak, langile bakoitzak modu indibidualen planteatu behar izaten ditu.

Era berean, euskal hedabide pribatuetako langileak banaka afiliatzen dira sindikatuetan eta, oro har, sindikatuen presentzia ahula dela esan daiteke sektore honetan. Alde batetik, langile kopuruak enpresan bertan sindikatuak presentzia izatea ahalbidetzen duen kasuetan, ez dagoelako sindikaturik. Andoni Alvarez EKTko langile-batzordeko kidearen esanetan, EKTn ez dago sindikaturik bertoko langileek eurek horrela erabakita: «Orain dela gutxi sindikatuen proposamenak jaso genituen, baina hemengo langileek argi dute nahiago dutela langile ordezkarik propioak izatea. Sindikatuak sartuz gero, langileen interesak defendatu baino, sigla batzuen interesa defendatzeko arriskua ikusten du jendeak. Era berean, kanpora begira, identifikazio zehatz batek ez liguke nire ustez onurarik ekarriko, zeren orain arte lortu dugun sinesgarritasuna, horrelako xehetasun batek zapuztuko luke»¹⁶.

Beste alde batetik, euskal hedabideen sektore pribatua ez delako oso eroso. Horixe uste du Inazio Arregi Goienako gerenteak: «Ez da gurea sektore eroso eta atsegina. Ez dut uste afiliatu asko izango dituenik sektoreak, ez baita medailak ateratzeko sektorea. Kasu batzuetan langileak eurak izan daitezke euren kontra egiten dutenak. Demagun adosten dela gutxienez 1.300 euroko soldata kobratzea. Agian komunikabideren batean hori kobratuz komunikabidea ezin da sostengatu, beraz, gutxiago kobratuta mantenduko dela esan dezakete langileek. Hala ere, sindikatuendako arlo publikoa oso erakargarria da. Uste dut sindikatuen lana zenbait sektoretan oso garrantzitsua dela eta hemen ere egin dezaketela, borondate onez etortzen badira behintzat»¹⁷.

Ezin ahaztu daiteke Eusko Jaurlaritzak aztertu dituen hedabide pribatu horietako askoren atzean, herri-ekimenak eta kultur elkarteak daudela. Izaera hori

14. Goiena, kooperatiba da, eta Kontseilu Soziala (Enpresa Batzordearen ordezkoa) dauka, bertan langileak ordezkatuta daude eta Kooperatibako Zuzendaritzarekin hitzarmena sinatzen dute.

15. *Berria* egunkaria kaleratzen duen EKTk bere baitan zenbait enpresa ditu eta horietako bat Euskal Editorea da, *Berria* kaleratzeaz arduratzen dena. *Hitzak* sortu eta garatzeaz Bertako Hedabideak enpresa arduratzen da EKTren baitan. Azpienpresa bakoitzak bere langile-ordezkaririk ditu eta horiek guztiak EKTko langile-batzordeko kide dira. *Berria* egunkariak halaber bere hitzarmena du, lan-ordutegiak, bajak, langile-kategoriak, soldatak eta bestelakoak arautzeko. Hiru urterik behin langile-batzordeak zuzendaritzarekin sinatzen du lan-ituna edo hitzarmena. Euskal Editorearen baitan 3 ordezkarik zeuden elkarrizketa egin zen unean. (2009ko martxoaren 13an).


16. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Alvarez, EKTko langile-batzordeko kidea, 2009-03-13, Andoain.

17. Sakoneko elkarrizketa: Inazio Arregi, Goienako gerentea, 2009-03-9, Arrasate.

gehienetan kontrajarri egiten zaio enpresa-egiturari. Inazio Arregi Goienako geren-teak, aldizkari espezializatueta eta toki-aldizkarietan enpresa-mentalitatearen falta sumatzen du: «Batez bestekoak ateratzen baditugu, B1 eta B2 multzoetako enpresak oso dira txikiak, lauzpabost lagunekoak eta horietako askok ez dute enpresa-mentalitaterik. Harremanak jendearen artean estuak dira eta zaila iruditzen zait lau txakurren truke batzuekin eta besteekin haserretzeko eta giro eskasa sortzeko prest egongo den norbait aurkitzea elkarte horietan. Gainera gure sektore honetan gauza batzuei buruz hitz egitea eta eztabaidatzea, badirudi bekatua dela. Hemen ez du inork dirua bere poltsikora eramaten enpresa pribatuetan bezala, irabaziak ez dira batzuen artean banatzen, guztiak barku berean gaude eta ez dago irabazirik, eta horrek ez du laguntzen enpresaren ikuspegia garatzen»¹⁸.

3.3. Hedabideetako langileen soldatak

3A grafikoa



Iturria: *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Autoreak moldatua.

30: Zuzendaria. 31: Zuzendariordea. 32: Areako burua, 33: Sail handiko burua. 34: Sail txikiko burua.

35: Erredaktorea, teknikaria, irratiko hizlaria, telebistako teknikaria, telebistako lokutorea, Interneteko diseinatzailea.

36: Administrazioa, langile kualifikatua, irratiko programazio-laguntzailea eta telebistako kamera.

38: Komertziala. 41: Mezularia.

18. Inazio Arregi, *op. cit.*

3.3.1. *Mileurismoaren zama*

3A grafikoari erreparatuta, oro har, euskarazko hedabideetan ari diren profesionalen urteko soldata gordina batez beste 17.800 eta 20.700 euro artean kokatzen da. Kopuru horiek hileroko soldata garbira itzulita, 1.100-1.300 euroko lansariak¹⁹ kalkula daitezke gutxi gorabehera.

Kontuan hartu behar da 3A grafikoan batez besteko kopuru horiek ateratzeko, aztertu diren hedabideetan beharreen ari diren langile-kategoria profesional guztien batez bestekoak hartu direla kontuan.

Kategorien araberako irakurketa eginez gero, argi ikus daiteke zuzendaritza-postuen (31, 32, 33, 34) eta erredaktore edo langile kualifikatuen arteko (35 eta 36) soldata-ezberdintasun txikienak prentsan daudela. Irrati, telebista eta hedabide digitaletan, zuzendaritza-postuen (31) eta gainerako kategorien arteko soldata-ezberdintasuna prentsan baino handiagoa da. Deigarria da batez ere telebistaren kasua, non zuzendariaren urteko soldata gordina (62.619 €) erredaktorearen soldata (15.610 €) baino lau aldiz handiagoa den. Irratian eta hedabide digitaletan proportzioa ia bikoitza da bataren eta bestearen artean.

3.3.2. *Enpresa handietako langileek soldata hobek dituzte*

Prentsaren baitan, egunerokoetan (A multzoan) kobratzen dute gehien kategoria bakoitzeko langileek. Halaber, B1 eta B2 multzoetako balioak erkatuz, B2 multzoko langileen ordainsaria B1 multzokoena baino hobea dela adierazten dute batez besteko datuek.

Ikus-entzunezko hedabideen multzoan, langile-kategoria ezberdinak kontuan hartuz, irratian soldata hobek dituzte telebistan eta hedabide digitaletan baino, telebistako zuzendariaren kasua salbuetsita, gainerako biek in alderatuz bikoitza baita. Dena dela, batez bestekoen arabera, ikus-entzunezko hedabideetan, langileek telebistan dute soldatarik baxuena. Atal honetan badago 3A grafikoan arreta eskatzen duen kopuru bat, salbuespena litzatekeena, irrati-tako komertzialen batez besteko urteko lansaria, 31.552 eurokoa. Kopuru horretan soldataren oinarria urtean 12.463 eurokoa litzateke eta pizgarrien kopurua urtean 19.089 eurokoa²⁰. Beraz, pizgarriak soldata baino 6.600 euro gehiago dira urtean.

Eusko Jaurlaritzaren datu-bilduman agertzen diren 93 hedabideetan, langile gehienak 35²¹ eta 36 kategorien²² artean biltzen dira. Hau da, 538 langiletik 341 langile bi kategoria horien barne daude, langileen % 63,3.

Hileroko soldaten estimazio²³ bat eginez, 35 kategorian dagoen langile batek eguneroko prentsan (A multzoa) hileroko gordinik 1.320 euro inguru jasoko ditu eta 36 kategoriako langile batek 1.220 euro. Informazio orokorreko aldizkari eta

19. Soldata garbi horiek estimazio bat dira. Kopuru gordina 14 pagatan zatitu da eta 200 euroko deskontua egin zaio Gizarte Segurantzara eta gainerako errententziora aplikatzeko.

20. Euskal Hedabideen Ordainsarien Análisis, 44. or.

21. Erredaktore, teknikaria, irrati-ko hizlaria, telebistako teknikoa, telebistako lokutorea eta Interneteko diseinatzailea.

22. Administraria, langile kualifikatua, irrati-ko programazio-laguntzailea eta telebistako kamera.

23. Hileroko soldata gordina kalkulatzeko, grafikoan ageri diren balioak 14 pagan artean zatitu dira.

aldizkari espezializatuetan (B1 multzoan) diharduen langileak, ordea, 1.279 euro jasoko ditu gordin hilean (35 kategorian) eta 920 euro gordin (36 kategorian). Herriko prentsa idatzian (B2 multzoan) 35 kategoriako langileek hilean gordin 1.292 euro irabaziko dituzte eta 1.205 euro 36 kategoriakoak badira.

Irratian 35 kategorian diharduenak batez beste hileroko gordin 1.323 euro irabaziko ditu. Telebistako langileek, ordea, 1.115 euro (35 kategorian) edo 1.155 euro (36 kategorian) jasoko dituzte. Hedabide digitaletako langileek hilean gordin 1.189 euro (35 kategorian) eta 1.162 euro (36 kategorian) irabaziko dituzte.

Ondorioz eta 2A grafikotik eratorritako hedabideen tamainak kontuan hartuta, datuak erakusten dutenez, enpresa handietako langileek soldata hobeak dituzte. 3A grafikoaren arabera, eguneroko hedabideetakoek —batez beste 8-10 langile eta *Berria* egunkarian 100 langiletik gora— eta irratietakoek —non batez beste 11 lagun ari diren beharrez— soldata altuagoak dituzte.

3.3.3. Soldatak hobetzeko beharra

Zaila da definitzea non dagoen behetik eta non goitik soldata duinaren muga. Baina hedabide publikoetako ordainsariekin alderatuz gero, orain arteko kopuruak baxuak direla esan daiteke. Izan ere, 2007an kategorian beretan ari ziren langileek ETBn zuten hileroko soldataren estimazioa²⁴ honakoa litzateke: 35 kategorian²⁵ sartzen diren langileen ordainsari gordina hilean 2.205,92 eurokoa eta 36 kategoriako²⁶ beharginena 1.958,04 eurokoa.

Hedabide pribatuen eta publikoen arteko aldea nabarmena da, hilean 1.000-1.200 euro ingurukoa. Hedabide pribatuetako soldata asko «mileuristak» dira.

Goienako gerente Inazio Arregiren aburuz euskal hedabide pribatuen soldatak hobetu daitezke: «Jaurilaritzak egin duen ikerketatik eratorritako soldaten datuak kontuan hartuta, uste dut hobegarriak direla orokorrean. Hala ere, guk egindako alderaketetan eta 2007ko datuei dagokienez, Goienako ordainsariak, ez asko, baina Euskal Autonomia Erkidegoko zerbitzuen sektoreko soldaten azpitik daude. Gu batez bestekoan egon gaitezke. Kontuan hartu behar da zerbitzuen baitan izango direla tabernetako zerbitzariak eta abokatu-buffeteko zuzendariak. Hala ere, esango nuke behetik gaudela, beraz, hobetu daitezke»²⁷.

Datu berberak interpretatzeko orduan, EKTko langile-batzordeko kide Andoni Alvarezen ustez, gaur egun *Berria* egunkariak dituen soldatak, euskarazko hedabide batean une honetan izan daitezkeen onenak dira, nahiz eta onartzen duen euskal kazetarien soldatak gaztelaniazko hedabideekin alderatuta baxuagoak direla: «Euskarazko hedabidea izanik, gainerako komunikabideekin —idatzizko gazteleraezkoekin esaterako: Diario Vasco, Noticias de Gipuzkoa— konparatuta, ez

24. ETBko 2003/2005 urteetarako Hitzarmen Kolektiboko 115. orrialdeko tauletan agertzen diren kopuruei % 3,8ko igoera egin zaie, 2007 urtera egokitzeko. Soldata hori oinarritzkoa da, ez dira pizgarriak sartzen.

25. ETBn 35 kategorian: B erredaktorea, produktorea, 2. mailako mant. elektr., sare-teknikaria.

26. ETBn 36 kategorian: C erredaktorea, errealizazio-laguntzailea, 1. mailako kameralaria eta 1. mailako operadorea.

27. Sakoneko elkarrizketa: Inazio Arregi, Goienako gerentea, 2009-03-9, Arrasate.

dira soldata altuak, baina bai duinak. EITBrekin konparatuta soldatak baxuak dira. Herri-aldizkariekin konparatuta nik uste dut antzekoak izango direla. Baina argi utzi nahi dut direla euskarazko komunikabide batek izan ditzakeen soldatarik hobere-
nak. Hala ere, euskarazko hedabideetan ari den jendeak gehiago kobratu beharko lukeela uste dut. Zentzu horretan, instituzioek apustua egin beharko lukete euska-
razko hedabideei bultzada emateko»²⁸.

Iritziak iritzi, hedabide bakoitzak beretzat propio eta modu indibidualean defini-
tzen ditu ordainsariak eta gehienetan proiektua aurrera ateratzeko norberak ord-
daindu ahal dituen soldatak izaten dira, ez baitago euskal hedabide pribatuetan
soldatak erregulatuko dituen gutxienerako marko juridikorik. Ordaindu ahal duen hori
da hedabide bakoitzak markatzen duen duintasun maila Goienako gerentearen
ustez: «Duintasuna batzuetan norberak eraikitzen duenaren araberakoa izaten da.
Eraiki nahi duzuna horrela bizitzeko bada oso duinak dira, baina eraiki nahi
duzuna beste baldintza batzuetan bizi izateko bada, ez da duina izango. Nire
ustez soldatak ez dira duinak, hobegarriak dira eta uste dut zuzendarien edo
zuzendaritza-taldean eginbeharretako bat izan beharko litzatekeela langileen lan-
baldintzak hobetzeko politikak garatzea»²⁹.

Euskarazko hedabide pribatu askoren sorrera-planteamenduetarekin kritikoagoa
da Andoni Basabe LAB sindikatuko ordezkaria ETBn. Bere ustez, hainbat proiektu
sortzen direnean, modu esperimentalean sortzen dira, etorkizun ziurrik gabe eta
horrek langileen baldintza eta soldatak baldintzatzen ditu. «Enpresa bat sortzen
denean, lehenengo ikusi behar da dirurik dagoen edo ez, dauden langileei modu
duin batean ordaintzeko. Hemen kontrara egiten da, lehenengo sortu egiten da eta
gero arazoak datoz dirurik ez dagoelako. Hori da militantziaren ondorio bat. Beraz,
modu militante batean sortu bada, gero ezin du enpresa moduan funtzionatu,
izango da beste gauza bat, baina ez enpresa. Ez da justua niretzat, langileei hala
moduz ordaindu eta proiektua aurrera ateratzea»³⁰.

Halaber, soldata txikiak izateak jendearen mugikortasuna eragiten du eta heda-
bide batean trebatu eta maila ona lortu duen kazetariak lan-baldintza hobeak
eskaintzen dizkion beste hedabide batera alde egiteko arriskua areagotzen du.
«Gure soldatak besteak baino baxuagoak izateak badu eragina gure egituretan
ere. Demagun, 22 urte dituzula eta kazetaritzako lizentziatura bukatuta *Berrian*
hasien zarela lanean, trebatzen zara eta 29 urterekin bihurtu zara oso kazetari ona.
Badator Noticias taldea eta eskaintzen dizu hemen kobratzen duzuna baino % 50
gehiago han lan egiteko. Aukera handia dago langile horrek alde egiteko eta ho-
rrek egituretan izugarritzako eragina du. Hemen gertatu dira eta gertatuko dira horre-
lakoak, eta horren aurrean ezin dugu ezer egin, ezin diogulako hark eskaintzen
diona eskaini»³¹.

Sektore guztirako lan-itun bat sortzea mesedegarria litzateke, profesioa arau-
tzeko, gutxienerako lan-baldintzak arautzeko, eta, bide batez, egungo anabasa ho-
netan ordena apur bat jartzeko. Lan honetarako elkarrizketatu diren iritzi-igorleek

28. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Alvarez, EKTko langile-batzordeko kidea, 2009-03-13, Andoain.

29. Sakoneko elkarrizketa: Inazio Arregi, Goienako gerentea, 2009-03-9, Arrasate.

30. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Basabe, LAB sindikatuko ordezkaria ETBn. 2009-04-12, Elorrio.

31. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Alvarez, EKTko langile-batzordeko kidea, 2009-03-13, Andoain.

begi onez ikusten dute sektorerako hitzarmena sortzea, egungo lan-baldintzak hobetzeko lagungarria izan litekeelako. Hala ere, zaila iruditzen zaie euskarazko komunikabideen sektore osoa arautuko duen hitzarmena gauzatzea. Batetik, oso egoera eta errealitate ezberdinetatik abiatzen delako sektorea, eta, bestetik, marko adostu baterako baldintzarik ez dagoelako.

Zailtasunak zailtasun, errealitateak datu gordinagoak erakusten dizkigu: euskarazko hedabide pribatuetan ari diren profesionalen soldatak euskarazko hedabide publikoetan ari direnenak baino baxuagoak dira. Elkarrizketatu diren prentsa idatziko protagonistek, beren hedabideetako egiturak finkatzeko, soldatak hobetzeko beharra dakusate.

3.3.4. *Diru gehiago bideratu behar da langile-gastuetara*

Batzuen eta besteen arteko soldaten ezberdintasunak agerian daudela, enpresek langilerian inbertitzen duten dirua zein den jakitea interesgarria litzateke. Jaur-laritzak egindako datu-bildumaren³² arabera eta 2007ko aurrekontuak oinarri hartuta, prentsak inbertitzen du gutxien langilerian, aurrekontuaren % 40 bideratzen da langile-gastuetarako. Irratiak bere aurrekontuaren erdia baino gehiago (% 56) gastatzen du langilerian. Telebistak % 47 eta sareko hedabideek % 59 zuzentzen dute langile-gastuetarako. Hortaz, irradiak eta sareko hedabideak dira gehien gastatzen dutenak langilerian.

Aipatu datuen arabera, aztertu diren hedabide pribatu guztiek euren aurrekontuetatik % 40tik gora inbertitzen dute langilerian. Ezberdintasuna prentsa idatzia-
ren eta ikus-entzunezkoen artean nabarmena izanik, 7 eta 19 punturen artekoa.

Lan honetarako iritzi-igorle protagonisten aburuz, langilerian dirua inbertitzea ezinbestekoa da orain arteko soldatak eta lan-baldintzak hobetu nahi badira. Hedabide-enpresek apustu hori egin behar dute nahitaez kalitatezko zerbitzua eman nahi badute. Izan ere, «hedabidearen autofinantzaketa eta diru-laguntzak proiektatzen dituenen, argi eduki beharko luke soldata duinak izateko eskubidea eta beharra dutela langileek. Langile/sortzaileen segurtasun eta ongizate ekonomikoak ez diola kalterik ekarriko ez enpresari, ez produktuari, ez kontsumitzaileari. Kontrara baizik: *staff-a* indartzeak produktua hobetzea ekarriko du. Diru-laguntzak ematean, Administrazioek kontuan izan beharko lukete hori» (Basterretxea, 2008: 125-126).

Andoni Alvarez EKTko langile-batzordeko kideak argi dauka EKTk «ahal duen neurrian»³³ nahikoa diru inbertitzen duela langilerian eta ez du uste «zuhurke-
rietan»³⁴ dabilenik.

32. Eusko Jaur-laritza (2009): *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia* (argitaratu gabe).

33. Andoni Alvarez, *op. cit.*

34. Andoni Alvarez, *op. cit.*

Berrian, 2006. urtearen erdialdean, bertako langile guztiek astean bi egun libratzeko plangintza onartu zen. Jaiegun bat igandea izango zen ordura arte bezala, inork ez baitu igandeetan lanik egiten *Berrian*. Bigarren jai eguna, astean zehar izango zuen larunbatean lan egiten zuenak. Andoni Alvarez EKTko langile-batzordeko kidearen iritziz, sei eguneko lan-astea izatetik 5 eguneko lan-asterako jauzia urrats erabakigarria eta mugarrria izan zen lan-baldintzei dagokienez. «Langileengan onerako eragina izan zuen, jendeak asko igarri zuen eta enpresak erabaki hori hartzeko orduan izugarritzko esfortzu ekonomikoa egin zuen. Horrek ekartzen ditu ordezkioak bilatzea, kontratu gehiago egitea... baina onerako izan da zalantzarik gabe»³⁵.

Soldatei dagokienez, *Berrian* hiru urterik behin zuzendaritzarekin sinatzen den lan-itunaren arabera, 2008an erabakia hartu zen 2009an soldatak igoko zirela. KPI gehi 0,5 puntu urtero zenbait urtez. Lehenengo soldata-igoera 2009an egiteko zen, «baina krisia dela eta, —hona ere iritsi baita— adostu dugu soldatak ez izotzea 0,5ean. Langile eta zuzendaritzaren artean hartu dugu erabakia»³⁶.

Goienako Kontseilu Sozialak (enpresa-batzordearen ordezkioa) hitzarmena sinatu berri du zuzendaritzarekin. 2009an dituzten soldatak eskualdeko zerbitzuen sektoreko batez bestekora egokitzeko. Plangintza bost urteko epean betetzea aurreikusten da. «Ez dakigu hemendik 5 urtera zer-nolako enpresa izango garen, baina soldatak eskualdeko batez bestekora egokitu nahi baditugu, gauzak egokitu eta aldatu beharko ditugu eta konpromisoa hartuta dago»³⁷.

Berria egunkarian eta Goienan ordainsarien inguruan hartu diren neurriek agerian utzi dute bertako langileen soldatak eta lan-baldintzak hobetzeko beharra eta horretan diru gehiago inbertitzeko premia. Bestalde, nabarmen geratu da beste behin ere, sektorea erregulatuko duen araudi orokorrik ez izateak hedabide bakoitzak bere egiturari dagozkion soldatak banaka hobetzeko plangintzak adostea dakarrela.

Ez du ematen orain arte langilerian egindako inbertsioak nahikoa direnik soldata onak bermatzeko, beraz, ondoriozta daiteke aurrekontuak egokitu eta diru gehiago bideratu behar dela langile-gastuetara.


35. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Alvarez, EKTko langile-batzordeko kidea, 2009-03-13, Andoain.

36. Andoni Alvarez, *op. cit.*

37. Sakoneko elkarrizketa: Inazio Arregi, Goienako gerentea, 2009-03-9, Arrasate.

3.4. Langileen antzinasuna

4A grafikoa



Iturria: *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia*, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila. Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Autoreak moldatua.

3.4.1. Antzinasun handiagoa lan-baldintzak hobek direnean

Orain arte esandako guztiak langileen antzinasuna baldintzatzen du neurri batean. Hots, zenbat eta lan-baldintzak hobek izan, orduan eta denbora gehiago emango dute langileek hedabide horretan. Hipotesi hori abiaburu hartuta eta 4A grafikoa agertzen diren datuei erreparatuta, argi dago langileek euskarazko irrati pribatuetan egiten dutela urte gehien lanean, bai zuzendaritza-postuetan dihardutenek bai erredaktore, soinu-teknikari edo esatariak direnek ere.

4A grafikoa erakusten duenez, zuzendari-kategoriaren diharduten langileek urte gehiago irauten dute irradian eta telebistan, sarean eta prentsan baino. 3A grafikoko datuen arabera, irrati eta telebistako zuzendarien soldatak dira altuenak. Beraz, egon daiteke lotura soldataren eta antzinasunaren artean.

Maila baxuagoetan ari diren langileen kasuan, aldiz, 4A grafikoa agertzen diren balioek bestelakoa diote. Hau da, urte gehiago ematen dituztela langileek irradian, sareko hedabideetan eta prentsan, telebistan baino. 3A grafikoa argitzen digu prentsako B1 multzokoekin batera, 35³⁸ eta 36 kategorietako³⁹ langileen soldata baxuenak telebistakoak direla. Arestiko hipotesia frogatzeko beste zantzu bat izan daitekeena.

38. Erredaktorea, teknikaria, irrati hizlaria, telebistako teknikaria, telebistako lokutorea, Interneteko diseinatzailea.

39. Administraria, langile kualifikatua, irrati programazio-laguntzailea eta telebistako kameralaria.

Batez besteko datuak kontuan hartuta, langileen lan-antzinatasuna handiagoa da irratian eta Interneten, prentsa idatzian eta telebistan baino. 3A grafikoan dauden datuekin alderatuz, soldataren eta antzinatasunaren arteko korrelazioa ez da horren argia. Alegia, soldata hobeak dituzten hedabideetan langileek gehiago irauten duten hipotesia ez da erabat betetzen batez bestekoetan.

Irratian korrelazioa betetzen da, irratian kobratzen baitute gehien langileek batez beste (20.624 €) eta bertan dute antzinatasun handiena (11 urte). 4A grafikoaren arabera, irratia ostean, sareko hedabideetako langileak dira antzinatasun handiena dutenak (7 urte). 3A grafikoak erakusten duenez, ordea, sareko langileen batez besteko soldatak (18.908 €) onenen artean badaude ere, eguneroko prentsakoen soldatak (19.776 €) hobeak lirateke.

4A grafikoan prentsa idatziko eta telebistako langileen antzinatasuna parekatua dago, 4 urtekoa da batean zein bestean. Soldatak bi kasuetan irratiko soldatak baino baxuagoak dira.

Datuak datu, ezinbestekoa da antzinatasunaren inguruan zenbait zehaztasun egitea. Eusko Jaurlaritzaren datu-bildumako 93 hedabideetatik, hainbat enpresa 2000. urtetik aurrera sortu ziren. Horien artean Goiena (2000. urtean) eta EKT (2003. urtean) daude zeintzuek euren hazia lehenagotik erein zuten. Goienak Debagoiena eskualdean 80ko hamarkadaren bukaeran eta 90eko hamarkadan sortu ziren herri-aldizkarietan du bere sustraia. EKTk 1990. urtean argia ikusi zuen eta 2003an Del Olmo epailearen aginduz itxi zuten *Euskaldunon Egunkarian* du oinarria. Bertako ordezkariak argitu nahi izan dute langile asko proiektu berri horiek gauzatu baino lehenagotik datozela. Beraz, garrantzitsua da antzinatasuna kalkulatzeko orduan horiek kontuan hartzea, batez bestekoan izan ditzaketen eraginagatik eta bi kasuetan langileen antzinatasuna, oro har, 7 urtetik gorakoa delako.

3.4.2. Langileen mugikortasunak produktuaren kalitatean du eragina

Analisi hau egiteko elkarrizketatu diren prentsa idatziko ordezkariak onartzen dute ezen egitasmo horietan dauden lan-baldintzek jendearen mugikortasuna sorrarazten dutela. Goienako gerenteak duen esperientziaren arabera, jendeak euskarazko hedabide pribatu hauetan ez du bere burua epe luzerako ikusten. «Sumatzen dut gurea bezalako hedabide batean jende asko sartzen dela ikasteko asmoz, ondoren beste toki batera jauzi egiteko, non baldintza eta soldatak hobeak diren. Hala ere, Arrasaten bizi bazara, zein aukera duzu komunikabideen arloan lan egiteko? Agian beste nonbait zertxobait gehiago kobratuko duzu, baina herritik kanpo irten behar duzu eta horrek gastu gehiago eragiten ditu. Susmoa dut, hedabide publikoak, Vocento taldea eta beste bakar batzuk kenduta, egoera erreala ez den oraindik ere okerragoa. Eta uste dut hiruzpalau laguneko “enpresa” edo taldea dagoen leku horietan, askoz gehiago mugitzen dela jendea, ez baitu ikusten aurrera egiteko aukerarik eta soldata eskasekin ari delako»⁴⁰.

Andoni Alvarez EKTko langileen ordezkariak jendearen mugikortasuna adin batetik aurrera gertatzen dela uste du, bateragarritasun-arazoak sortzen direlako, kazetaritzak denbora eta esfortzu handia eskatzen baitu. «Kazetaritzak asko

40. Sakoneko elkarrizketa: Inazio Arregi, Goienako gerentea, 2009-03-9, Arrasate.

xurgatzen du eta gurean badaude hori justifikatzen duten bi datu. Batetik, 5-7 urte daramatzen jendearen eszedentzia kopuru altua urtero, eta bestetik gure erredakzioaren adinaren batez bestekoa, 30 urte ingurukoa dela. Egunkari batek exigentzia maila handia eskatzen du eta indartsu eta fresko egon behar da. Adin batetik aurrera bestelako erabakiak hartzen dira bizitzan, esaterako umeak ekartzea, eta egunkari batean dauden ordutegi eta egutegiekin, zailagoa da etxetik goizeko 10etan irten eta gaueko 10etan bueltatzea»⁴¹.

LAB sindikatuko ordezkari Andoni Basaberen ustez, langileak prest daude baldintza eskasetan aritzeko hasieran, ilusioak iraun bitartean. «Unibertsitatean klaseak ematen nituen garaiko ikasle ohi bat aurkitu nuen, ikasle ona zen, matrikulak ateratzen zituen. Deustuko bingoan zebilela lanean esan zidan, bingoan diru gehiago irabazi eta ordu gutxiago lan egiten zuela eta ez zuela hedabideetara bueltatzeko asmorik. Gertatzen ari dena da kazetaritza ezegonkortasunaren eredu nabarmenena dela. Bokaziozkoa den lana da. Jendeak gustuko du eta gogoia, pasioa duen bitartean gustura egiten du lan hor nahiz eta huskeria kobratu. Ilusioak irauten duen bitartean jendea prest dago kazetaritzan aritzeko»⁴².

Neurri batean unibertsitateak hori «elikatu»⁴³ egiten duela pentsatzen du Basabek. Enpresa horietan lan egiteko jendea unibertsitateetik etengabe irteten delako. «Batzuk joango dira ilusioa galduta, baina atzetik beste batzuk datoz, beraz, hor badu unibertsitateak erantzukizuna»⁴⁴.

Lan-ordutegi luzeek, lan-egutegi estuak, dedikazio handiak, taldeen egitura txikiek eta soldata baxuek jendearen mugikortasuna eragiten dute euskarazko hedabide pribatueta. Horrek zaildu egiten du langileria finkatzea eta, ondorioz, jendeak zailtasun handiagoak ditu lanean ari den proiektu horretan konpromisoak hartzeko, ez baitu bere burua luzaroan hedabide horietan ikusten. Jendearen fin-kotasunik ezak produktuaren kalitatean du eragin zuzena, zeren euskarazko hedabide pribatueta trerabatutako kazetariet alde egiteko arriskua handiagoa baita.

3.5. Enpresa publikoak azpikontratatzan dituen enpresetan ari diren langileen soldatak eta lan-baldintzak eskasak dira

Alde batean, orain arte aztertu ditugun euskarazko hedabide pribatueta ari diren langileen lan-baldintzen alderdi batzuk eta euren soldatak daude. Beste muturrean, aldez, euskarazko hedabide publikoetan ari diren langileen lan-baldintzak eta soldatak daude, ikerlan honetan behin eta berriz eredu gisa agertu direnak.

Hedabide publikoetan ari diren beharginen lan-baldintzei dagokienez, kasuistika zabala bezain plurala bada ere, oro har, lan-baldintza hobeak eta soldata bikoitzak dituzte hedabide publikoetan lan finkoa duten beharginek. Euskarazko Kazetaritzaren I. Kongresuan aurkeztutako txostenean, Andoni Basabek, ETBn LAB sindikatuaren ordezkaria denak, honela definitu zituen hedabide publikoak, primerako hedabide gisa: «Laneko baldintzei begiraturik, primerako medioak

41. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Alvarez, EKTko langile-batzordeko kidea, 2009-03-13, Andoain.

42. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Basabe, LAB sindikatuko ordezkaria ETBn. 2009-04-12, Elorrio.

43. Andoni Basabe, *op. cit.*

44. Andoni Basabe, *op. cit.*

medio publikoak dira: *Euskal Telebista*, *Euskadi Irratia*: horko kazetariak 35 orduko lan astea dute, jai egunetan lan egiteagatik egun bi libre hartzeko aukera, soldata ondo horniturikoa, aparteko ordainsari bi, sindikazio eskubidea, bajak hartzeko eskubide praktikoa... Gainera, eguneko eginkizuna ondo zehazturik dago eta, normalean, ez du lan handirik eskatzen: bideo bakarra izan liteke —hizkuntza bietan, askotan euskarazko katearen kalitatearen kaltetan, jakina—, edo gertakari zehatz bat kubritzea. Astean bost egunean egiten dute lan, edo egunetik domekara. Azkeneko txanda horretan jarduteak diru gehiago irabaztea dakar, jakina» (Basabe, 2005: 437).

Hedabide publikoetarako lanean ari diren aldi baterako langileen egoera eta azpikontratetan diharduten langileen egoera, ordea, oso bestelakoak dira. Analisi honetan, enpresa publikoak azpikontratatzeko dituen enpresetan ari diren langileen egoeran zentratuko gara. LAB sindikatuko ordezkari Andoni Basaberen arabera, «EITBNETentzako lanak egiteko sortu diren enpresetan ari diren langileen lan-baldintzak oso kaskarrak dira. Azpikontrata horietan kazetari-lana egiteko kontratatzen diren langileei Bizkaiko administrariaren hitzarmena aplikatzen zaie, lehen mailako ofizialaren kategoriako profesional gisa kontratatuz. Beraz, pertsona lizentziatu bat, bi edo hiru hizkuntza dakizkiena eta erreminta informatikoak erabiltzen dakienaren soldata hilean gordinik 1.110-1.300 eurokoa da»⁴⁵.

EITB taldeak, EITBNETen bitartez hainbat enpresa sortu ditu EITBNETerako lanak egiteko. 5A grafikoa argigarria izan daiteke enpresa horien funtzionamendua ikusteko.

EITB taldeak, EITBNETen bitartez, LANALDEN, VILAU MEDIA, MBN eta M4F enpresak sortu ditu. Enpresa horietan, EITBNETek zuzenean edo VILAU MEDIAREN bitartez kapitala dauka. Esaterako, VILAU MEDIAN EITBNETek % 50eko parte-hartzea du bestelako enpresa pribatuekin batera eta bertako presidentea, EITBNETekoa da. Baina EITBko Administrazio Kontseiluak⁴⁶ ez ditu enpresa horiek kontrolatzen, VILAU MEDIAREN kasuan partizipazioa % 50 delako eta horren gaineko kontrola izateko % 51 izan beharko lukeelako.


5A grafikoarekin jarraituz, VILAU MEDIAREN ondoren MBN enpresa sortzen da lehenengo, gaur egun M4F bihurtu dena. M4Fn VILAU MEDIAN % 40ko parte-hartzea du eta EITBNETek % 10, EXPRESSIVEk % 15 eta LANALDENek % 30. M4Fn VILAU MEDIAN % 40 dauka eta VILAU MEDIAN EITBNETek % 50, gainera zuzenean EITBNETek M4Fn beste % 10eko parte-hartzea du. Beraz, EITBNETek teorian M4Fn duen % 10eko partaidetza, praktikan % 50 (VILAU MEDIA + EITBNET) da. Era berean, M4Fko presidentea VILAU MEDIAN da.

M4F enpresa horretan % 15eko parte-hartzea duen EXPRESSIVE enpresa EITBk sortutakoa da publizitatea kudeatzeko. 5A grafikoa ikus daitekeen moduan, lehenengo GDM zen, gero EXPRESSIVE bilakatua. EXPRESSIVEN VILAU MEDIAREN parte-hartzea % 34koa da eta EITBNETena % 33. Bertako presidentea VILAU MEDIAN da eta idazkaria EITBkoa.

45. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Basabe, LAB sindikatuko ordezkaria EITBn. 2009-04-12, Elorrio.

46. Organo hau Eusko Legebiltzarrean izendatzen da. Administrazio Kontseilua alderdi politikoek ezarritako ordezkariak eta eragile sozialetako ordezkariak osatzen dute.

5A grafikoa



Iturria: LAB sindikatua.

- EITB taldea
- EITBNETen kontratak
- Kapitalaren banaketa
- Administrazio Kontseilua

X Pertsonen izen-abizenak

Vilau eta Vilau Media enpresa bera dira

EITBren estrategia horren aurrean oso kritiko azaltzen da Andoni Basabe. Batetik, diru publikoa erabilia, kontrol publikorik ez duten enpresak sortzen direlako, eta, bestetik, enpresa horiek langilerian dituzten ondorio larriengatik. «Harrigarriena da ikustea nola langilez eta edukiz husten ari diren enpresa publikoak eta nola beste enpresa batzuen bitartez langileenganako kontrola areagotu nahi duten. Horrek eragin zuzena du langileen lan-baldintzetan. Hala ere, guretzat oso grabea da diru publikoarekin sortzen diren enpresa horiek duten kontrol publikorik eza. EITBko Administrazio Kontseiluak ez daki nola funtzionatzen

duten enpresa horiek eta zein den bertan kapital-banaketa. Eskatu dituzte horren gaineko datuak guk dakigunez»⁴⁷.

EITBk ENG⁴⁸ ekipoak azpikontratatzeko enpresetan ari diren langileen lan-baldintza eta soldatak ere oso kaskarrak dira. Azpikontrata horietan lanean ari diren kameralarien soldatak ez dira EITBn kamera-lana egiten dutenenen soldaten erdira heltzen. «Oso handiak dira ezberdintasunak EITBko langileekin konparatuta. Gure kalkuluen arabera, enpresa horietan diharduten kameralarien soldata gordina hilean 1.200 eurokoa zen. Bestalde, lan-baldintzak ez dira batere onak. Hor ez dago 7-8 orduko lan-jardunik, ordutegi finko gabe ari dira eta libre hartzeko duten aukera oso murrizta da horrelakoetan. Ni askotan irten naiz kameralari horiekin lanera kanpora, eta argi eta garbi diote, zerbitzari hobeto kobratzen dela telebistarako lan egiten baino»⁴⁹.

Enpresa publikoek eurentzako edukiak ekoizteko azpikontratatu dituzten enpresa pribatuetako langileen soldata eta lan-baldintzak kaskarrak dira oro har. Zenbait kasutan, azpikontratatu enpresa horietan, enpresa publikoek kapitalaren parte-hartzea dute.

4. Ondorio nagusiak

Euskarazko hedabide publikoetarako azpikontratatu diharduten langileen eta, euskarazko hedabide pribatuetan ari diren zenbait langileren lan-baldintzak eta ordainsarien nondik norakoak ezagututa, analisi honetan egindako diagnostikotik honako ondorio nagusiak bildu daitezke:

- a. Oro har, euskarazko hedabide pribatuetan ari diren beharginen lan-baldintzak kaskarrak dira. Lan-ordutegi luzeak eta finkatu gabeak dituzte euskarazko hedabide pribatuetako langileek, gehienetan 8 ordutik gorakoak. Jaiegunetan lan egiteak ez du aparteko eskubiderik ematen ezta gehiago kobratzeko eskubiderik ere.
- b. Enpresa askoren tamaina txikiak ez du ahalbidetzen bertako langileek ordezkari izaterik zuzendaritzen aurrean euren eskubide eta eskaerak egiteko. Sindikatuz gero, banaka egiten dute langileek. Horregatik euskarazko hedabide pribatuen sektoreak ez du sindikazio maila erabakigarriarik.
- c. Analisi honetan aztertu diren hainbat proiekturen izaera juridikoak eta tamaina txikiak zaildu egiten dute enpresa-egitura sendoa garatzea.
- d. Profesioak berezkoak dituen baldintza txarrei euskarazko hedabide pribatuetan jasotzen diren ordainsari baxuak gehitu behar zaizkie, soldatak, euskarazko komunikabide publikoetan baino baxuagoak direlako. «Mileurista» izatetik gertu daude. Batez beste hileko 1.100-1.300 euro gordineko ordainsariak jasotzen dituzte euskarazko komunikabide pribatuetako langileek, zortzi orduko lanaldia dutenek alegia.

47. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Basabe, LAB sindikatuko ordezkaria ETBn. 2009-04-12, Elorrio.

48. Electronic News Gathering. Informatiboetarako produkzio elektronikoa, albisteak estudioetatik kanpo grabatzeko erabiltzen diren ekipoek ahalbidetzen dutena.

49. Sakoneko elkarrizketa: Andoni Basabe, LAB sindikatuko ordezkaria ETBn. 2009-04-12, Elorrio.

- e. Euskarazko hedabide pribatuen sektorean langilerian egiten diren inbertsioak handitzeko premia sumatzen da.
- f. Euskarazko komunikabide pribatuetako lan-baldintza eskasek bertoko langileen mugikortasuna areagotzen dute. Oro har, langileen antzinasuna baxua da (5 urte ingurukoa batez beste) eta horrek produktuaren kalitatean eta egonkortasunean eragin zuzena du. Hedabideotan trebatutako espe-rientziadun profesionalen iraupena bermatzeko zailtasunak dituzte.
- g. Komunikabide publikoetarako azpikontratetan lanean diharduten langileen lan-baldintzak eskasak dira. Hots, euskarazko mezu-bide pribatuetan lan egiten duten beharginen parekoak, baina hedabide publikoetarako lan egi-ten duten hainbat enpresatan, komunikabide publikoak kapitalaren partai- detza dauka.

5. Etorkizunerako proposamenak

- Aurrerantzean ezinbestekoa da zezenari adarretatik heltzea. Premiazkoa da lan-baldintzen inguruan hausnarketa sakona eta serioa egitea komunikabi- deen sektorea osatzen duten agente guztien artean. Besteak beste, heda- bideen, administrazioaren, unibertsitateen eta gaian adituak direnen artean. Hedabideen sektorea estrategikoa dela benetan sinesten bada, arreta berezia eskatzen du beharginen lan-baldintzen eta ordainsarien gaiak. Izan ere, langileak dira proiektu horietako zutabe eta oinarri nagusia. Langilerik gabe, ez dago enpresarik ezta produkturik ere.
- XX.-XXI. mendeetan euskarazko hedabide gehienak sortu ziren, baina orain, horiek guztiak egonkortzeko unea da. Finkatzeko ibilbide horretan berebiziko garrantzia du profesioa duintzeak. Horretan lagungarria izan daiteke soldatak eta lan-baldintzak arautuko dituen komunikabideen arlo- rako hitzarmena sortzea. Sektorea arautzeko gutxieneko baldintza horiek sektoreko protagonisten artean negoziatu, adostu eta finkatu beharko lira- teke. Ez da lan erraza, traumatikoa ere suerta daiteke zenbaitetan, baina epe luzerako estrategia bateraturik diseinatu ezean, zaila izango dute hedabide batzuek bizi irautea.
- Hedabideek eta horiek kudeatzen dituzten zuzendaritza-taldeek erantzuz- kizun maila handia dute, bertan ari diren langileen egoera hobetzeko. Lehenatasunezko gaia da langileena eta ausardiaz jokatzeko eskatzen du, langilerian diru gehiago inbertituz eta gaiari —bestelako proiektuen aurretik— lehenatasuna emanaz. Proiektuei ez zaie konponbidea kanpotik etorriko, norberak bere etxea gobernatu behar du eta norberaren aurreikus- penen arabera finkatu behar du langileria.
- Administrazioak badu zeregina euskarazko hedabide pribatuetako zein publikoetako langileen lan-baldintzak hobetzen laguntzeko. Diruz laguntzen dituen proiektu pribatuekin elkarlanean lan-baldintza eta soldata minimo batzuk adostu. Horiek kontuan hartu dirua banatzeko irizpideak finkatzeko orduan. Esaterako, lan-baldintzetan inbertitzen duten enpresak saritu, ez soilik diru-laguntza gehiago jasotzeko, ez bada zerga gutxiago ordaintzeko.

Arlo publikoan, berriz, komunikabide publikoetarako lanean ari diren azpi-kontratetako langileen egoera aztertzea eta lan-baldintza duinak exijitzea ezinbestekoa du administrazioak. Lan bera egitearren soldata kopuru erdiak ordaintzea ez baita bidezkoa, are gutxiago arlo publikotik politika hori bultzatzen denean.

- Egun, idatzizko prentsan daude abian euskarazko komunikabideen sektorean proiektu gehien. Eusko Jaurlaritzak aztertu dituen 93 hedabideetatik, 62 prentsa (% 66) idatzizkoak dira. Prentsa idatziak aspalditik mundu mailan bizi duen irakurleen galerari, publizitatearen jaitsiera lotu zaio azken urte eta erdian eta Euskal Herrian horren eragina nabaritzen hasia da. Prentsarena argiago ikusten bada ere, sektore osoko hedabideek dute erronka etorkizunari erantzun ahal izateko, eta horretarako, langileak funtsezko pieza bilakatuko dira hedabideotan.
- Adituen esanetan, etorkizuna kazetaritzaren espezializazioan dago. Eskarmentua eginaren eginez lortzen da eta horretarako profesioan urteak pasatzea ezinbesteko baldintza da. Aurrerantzean euskarazko kazetaritzak esperientziadun eta eskarmentuzko kazetari espezializatuak nahi baditu, zaindu egin beharko ditu eta lan-baldintza eskasen aitzakiaz alde egiteko arriskuari aurre egin beharko dio nahitaez. Orain arte langileei eskaini ez zaiena eskaintzen hasi beharko dira hedabideak, aurrera egin nahi badute.

Bibliografia

- Aiestaran, A. (2007): *Debabarreneko euskarazko komunikazio-sistema. Tokian tokiko kazetaritza-genero eta gaien analisia 2000-2004 bitartean* [dokto-re-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa.
- Amurrio, M. eta Martin Sabaris, R. (2005): "Ikus-entzunezko kazetarien lanbide soslaia" in Zenbaiten artean, *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Aranguren, A. (2000): *Euskarazko komunikabide lokalak Euskal Herrian* [dokto-re-tesia], Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Basabe, A. (2005): "Euskal kazetariaren lan-baldintzak edo baldintza bako lana", in Zenbaiten artean, *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Basterretxea Polo, J. I. (2008): "Arto gutxitan, kalabaza jaki (gizarte-komunikazioa, euskaraz eraikitzen)", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **68**, Andoain, Gipuzkoa.
- , (2008): "Sektorea sinergia argiaren esperoan", in Zenbaiten artean, *Euskara hedabideetan*, Eusko Jaurlaritza – Kultura Saila, Gasteiz.
- Carramiñana, M. (2009): "Prentsa papera galtzen", *Egitura gehigarria*, *Berria*, 2009/III/29.
- Euskal Telebista (2003): *Euskal Telebista, S.A.ren 2003-2005 urteetarako hitzarmen kolektiboa*, Iurreta.
- Eusko Jaurlaritza (2007): Diruz lagundutako hedabideen ebazpena, Kultura Saila, Gasteiz.
- , (2008): *Euskara hedabideetan*, Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gasteiz.
- , (2009): *Euskal Hedabideen Ordainsarien Analisia* (argitaratu gabe), Kultura Saila, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, Gasteiz.

- Fernandez, L. (1997): "Euskal Kazetariaren profila", *Jakin*, **96**, Donostia, 51-62.
- LAB. (2008): *EITBren "New Style": Arlo publikoarekin lagunkeria eta prekaritatea batetik, kontrola eta kontrol falta bestetik* agiria, LAB, Bilbo.
- Ramirez de la Piscina, T: (2009): *Kazetari aditua unibertso digitalean*, UEU, Bilbo.
- Zabaleta, I.; Gutierrez, A.; Xamardo, N.; Urrutia, S. eta Fernandez, I. (2008): "Hizkuntza gutxituetako hedabideak Europar Batasunean: egoera, banaketa eta garapen-abiadura ezberdinak", *Euskonews & Media*, **449**,
<<http://www.euskonews.com/0449zbk/gaia44901eu.html>>.
- Zenbaiten artean (2005): *Kazetaritza euskaraz: oraina eta geroa*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- , (2006): *Prentsa, irratia, sarea, telebista*, Euskarazko Hedabideen topaketa-mintegiko txostena, Udako Euskal Unibertsitatea, Eibar.
- , (2008): "Hedabideak eta euskara-plangintza", *Bat Soziolinguistika Aldizkaria*, **68**, Andoain, Gipuzkoa.

